

BUSTURIALDEA / Haur liburuen garrantzia azpimarratu dute

Haur liburuen nazioarteko eguna ospatu zuten atzo eskualdeko zenbait liburutegitan. Mundakan, Busturian eta Foruan, adibidez, herrietako umeek ipuin kontalariez edota ipuin irakurketez disfrutatu ahal izan zuten. Busturian, adibidez, bi ipuin kontalari saio izan zituzten Altamirako liburutegian. Goizean txikien txanda izan zen, eta, txotxongiloen bitartez, haur liburuek kontatzen dituzten istorioen garrantziaz ohartu ahal izan ziren han izan ziren umeak. Bestalde, eguerdian zortzi eta hamabi urte bitarteko txanda izan zen. Horiek zenbait istorio entzun ahal izan zituzten Apika taldearen eskutik. Istorio berdinak entzuteko aukera izan zuten Mundakako umeek ere. Izan ere, Apika taldea atzo arratsaldean Mundakako liburutegitik ere pasatu zen. Foruko umeek, oster, ipuin irakurketa saioa egin zuten elkarrekin.